

'HIRI ETA INDUSTRIA INGURUNEAREN ERALDAKETA, BERRONERATZEA ETA NATURALIZAZIOA'-REN BIGARREN EDIZIOA EHU UDA KO IKASTAROEN BARRUAN

Posted on 22/02/2023 by Naider

Category: [Albiste](#)

Tags: [Birnaturalizazioa](#), [Hiri-birmoldaketa](#), [Hiri-eraldaketa](#)

2022an gauzatu zen [Hiri eta Industria Ingurunearen Naturalizazioari buruzko EHU Udako Ikastaroaren lehen edizioa](#), Naiderretik zuzendua. Esperientzia aberasgarria izan zen, hiri-eraldaketa hainbat eremutatik jorratzen duten profesionalen hitzaldi adituekin, eta, besteak beste, arkitekturako, ingurumen-zientzietako, ingeniartzako, ekonomiako eta zerbitzu publikoko profilak barne hartu zituzten bertaratuen parte-hartze aktiboarekin.

Lehenengo deialdiaren arrakastaren ondoren, UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioak **Hiri eta Industria Ingurunearen Eraldaketa, Berroneratzea eta Naturalizazioa** ikastaroa egingo dela baieztatu du **uztailaren 20an eta 21ean**. Naiderrrek berriz zuzenduko du ikastaroa, eta aurreko edizioan jorratutakoa osatu eta zabalduko du, hiri-inguruneak birkontzeptualizatzeko eta gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-eskaerak asetzeko ikuspegi eta tresna berriekin. Oraingo honetan, ikastaroa **Donostian** izango da, **Miramar Jauregian**.

Atariko programak honako txosten hauek ditu:

LEHEN EGUNA (Osteguna, uztailak 20):

- Hiri berroneratzeko eta naturalizatzeko tresnak nazioartean erreferentziazkoa den metropoli-eremu batean
- Hirigintza jasangarri, zirkular eta birsortzailearen irizpideak eta naturan oinarritutako irtenbideen eginkizuna
- 4.0 industrialdeetan energia-komunitateak aktibatzea
- Emisio txikiko zonak eta hirien eraldaketa subertsiboaren erronka

BIGARREN EGUNA (Ostirala, uztailak 21)

- Hiri-eraldaketako, birsorkuntzako eta naturalizazioko jardunbide nabarmenak: Mahai ingurua sektore publikoko ordezkariekin
- Hiri-berroneratzean erreferentea den hiri baten hirigintza ekologikoa: Azpiegitura Berdearen Plana
- Ekonomia hiri- eta industria-inguruneen berroneratzearen zerbitzura

Hurrengo hilabeteetan, hizlarietara eta jardueretara, izena emateko moduetara eta bestelako datu praktikoei buruzko informazioa zabaltzen jarraituko dugu. Bien bitartean, zuen agendetan txoko bat erreserbatu dezakezue!

